

PRENTSA OHARRA

Bilbon, 2021eko abuztuaren 2an.- Euskadiko Futbol Federazioak modu formalean jaso du asteburu honetan FIFArene ezezkoa erakundeko eskubide osoko kide izateko eskaeraren aurrean, eta horrek itxi egiten du oraingoz Euskal Selektzioak era ofizialean nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko atea. Duela aste batzuk UEFAk jarrera bera erakutsi zuen, eta gaur goizean bertan jakinarazi zaio erabaki hori EFFri RFEFren bitartez, UEFAk azken erakunde horri bidali baitio bere idazkia.

Albiste txarra da Euskadiko Futbol Federazioarentzat. Federazioak bere zerbitzu juridikoei igorri dizkie jada bi ebazpenak, horren inguruan zerbait egin daitekeen baloratzeko.

Munduko futbolaren erakunde gorenak Euskadiko Futbol Federazioaren eskaera ukatzeko emandako argudioa FIFArene araudiak ezartzen dituen legezko irizpideak ez betetzean oinarritzen da: EAE Autonomia Erkidegoa da eta ez nazioarteak onartzen duen estatu independente bat. Erakunde horretako kide bilakatzeko EEFK egindako eskariari ezezkoa emateko UEFAk erabili duen argudio bera da.

Euskadiko Futbol Federazioa ez dago ados ebazpen bi horien argudioekin, eta ofizialtasunaren alde lan egiten jarraituko du arlo guztietan, gure gizarteak eskatzen duen aintzatespena lortzeko ahaleginak areagotuz.